

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua gauzatzeko, proiekturako proposatzen dugun liburu-formatu txikiagoa (letra txikiagoa eta orri gutxiago) ekoizteko prest dauden hainbat editorialen bazkidetza beharko genuke.

Guretzat garrantzi handikoa izango litzateke argitaletxe horiekin elkartzea, ingurumena errespetatzen duten liburu txikiagoak emango dizkigutelako. Horiek gabe, ezerk ez gintuzke merkatuko beste liburuetatik bereiziko.

Hornitzaileei dagokienez, gure proiektua gauzatu ahal izateko hainbat enpresaren hornidura behar da.

Lehenik eta behin, inprimaketa eta eskanerra egiten dituen enpresa batekin jarri beharko ginateke harremanetan (liburuak eskaneatu eta aparatuan sartutako pantaila digitalean proiektatzeko).

Bigarrenik, proiektagailuetan espezializatutako informatikako eta elekteronikako enpresa batekin lan egingo genuke (proiektoreak eta pantaila digitalak beharrezko piezak bana diezazkiguten).

Azkenik, enpresa bat arduratuko litzateke produkturen muntaketaz (muntaketa informatikoan ere espezializatua).